

Galdera

'Kimikako Mintegi Burua' edo 'Kimika Mintegiko Burua'. Zer da zuzenagoa emailaren sinaduran ipintzeko?

Erantzuna

'Kimika mintegiko burua'

1/ Ortotipografiaren aldetik, kontuan hartu behar da non idatziko den, errotulazioan, gutun baten goiburuan/sinaduran edo testu-gorputzean.

Errotulazioan —bulegoan, esate baterako— ohikoena letra larriak erabiltzea da: **KIMIKA MINTEGIKO BURUA**

Testu-gorputzean, berriz, lehen hitza bakarrik idatzi ohi da letra larriz: *Kimika mintegiko burua*

Ikusi:

IRALE kontsulta-zerbitzua [Testuak, zalantzak eta beste](#) 48. or. (LPO mintegiko irakaslea)

LPO mintegiko irakaslea... Ostalaritza mintegiko irakaslea

IRALE kontsulta-zerbitzua [Karquen izenak bisita-txarteletan](#)

"Ez ditugu letra larriak erabiltzen *sail, arduradun* eta *buru* hitzetan".

Laneko Prestakuntza eta Orientabidea saileko burua

EIMA estilo-liburua [Letra larriak](#)

2.2.1.6. *Izen bereziekin batera erabiltzen diren izendapen generikoak* (32. or. eta hurrengoak)

Izendapen generiko horiek letra xehez idazten dira... Trajano enperadorea... Agirre lehendakaria...

Miren Azkarate Kulturako sailburuak esan du... Gaur goizean, *Kulturako sailburuak* esan du...

2.2.1.7.2. *Irizpidea* (35. or. eta hurrengoak)

Horiek horrela, hona hemen irizpidea testu arruntetarako eta eskola-materialetarako:

Izendapenak pertsonaren izen berezia ordezkatzeko duenean, erreferentziakidetzat hartzekoa da; ez da, beraz, letra larririk erabili behar.

Gaur bilduko dira *Euskaltzaindiko idazkaria* eta *EHUko errektorea*. Irratian entzun dugu Eusko Jaurlaritzako *Justiziako sailburua* eta Espainiako *Justiziako ministroa* atzo bildu zirela.

2/ Bestalde, 'mintegiburu' hitza loturik idazten da, baita sailburu, batzordeburu, ontziburu, zerrendaburu, euskaltzainburu, ikasketaburu... ere.

Ikusi: **Euskara Batua**ren **Eskuliburua** [-buru-](#)

3/ Honelatsu joan daiteke sinadura hori posta elektronikoan:

Otsanda Larrunbide	elbirazipitria.eus
Otsanda@elbirazipitria.eus 	Obaba Elbira Zipitria ikastetxea
999 44 33 77 	Kimika mintegiko burua